

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroako Ogasunak 2018ko errenta kanpaina abiatu eta 65,7 milioi itzuli dizkie 145.080 aitortzaileri, zergadunen erdiei baino gehiagori proposamenak egin dizkielarik

*Ostegun honetan hasita aitortenak Interneten bidez aurkezten ahalko dira, eta hilaren 12tik aitzina, bulegoetan eta entitate laguntzaileetan*

Asteazkena, 2019.eko apirilak 3

Nafarroako Zerga Ogasunak [2018ko ekitaldiari dagokion Errenta eta Ondarearen Kanpaina](#) abiarazi du ostegun honetan, apirilak 4, zergadunen erdiei baino gehiagori dagozkien 198.782 aitorten-proposamen aurkeztuz eta online aitortenak irekiz.

Hilaren 12az geroztik, aitortenak modu presentzialean egiten ahal dira entitate laguntzaileetan eta Ogasunaren bulegoetan, hilaren 10etik aurrera eskatu beharreko alde zuzeneko hitzorduaren laguntzaz. Kanpaina ekainaren 24ra arte irekita egonen da, egun hori barne.

Ogasun eta Finantza Politikako kontseilari Mikel Aranburuk aurkeztu du “Zuk egiten duzu posible. Zuri esker” deritzon kanpaina, PFEZ eta Ondarea Kudeatzeko Zerbitzuko zuzendari Marta Huarterekin batera.

Aranburuk berariaz nabarmendu du Nafarroako Zerga Ogasunak kanpainaren hasierako aitorten-proposamena zergadun gehiagori aurkezteko egin duen ahalegina. “Ildo horretan, bihar bertan, zergadunen erdiei baino gehiagok aitortzen egina dutela egiaztatzen ahalko dute”, ziurtatu du.

Horrekin batera, ia lehendabiziko aldiz abian jarri zen Nafarroa Errenta programa azpimarratu du, “arras programa intuitiboa baita aitortzen Interneten eta lau urratsetan egiteko, eta bihar hasita, horretaz baliatzen animatu nahi ditut zergadunak”.

### **Apirilak 4, 198.782 aitorten-proposamen zergadunen erdiendako baino gehiagorendako**

Kanpaina abiatzeko, Nafarroako Ogasunak landutako 198.782 aitorten-proposamen jarri ditu 254.527 zergadunen eskura. Iazko kanpainako zergadun kopurua bere horretan mantenduz gero, ia erdiei egina izango lukete aitortzen, eta ez lukete inongo tramiterik egin behar, proposamenaren emaitzarekin ados egotekotan.

Ogasunak aitorten-proposamena egina ote duen egiaztatzeko, ostegunean hasita, apirilak 4, [www.zuriesker.info](http://www.zuriesker.info) webgunea kontsultatzen ahalko da. Aitortzen egina dutenek une horretan bertan deskargatzen ahalko dute. Gainera, apirilaren 9az geroztik, ohiko postaz iritsiko da etxebizitza guztietara.

Apirilaren 11n, "itzultzeko" emaitza duten aitoren zenbatekoak ordainduko dira zergadunen kontuetan. Hartara, aurretiaz landutako 198.782 proposamenetatik, % 57k "itzultzeko" emaitza du eta 145.080 zergaduni dagokio. Guztizko zenbatekoa 65,74 milioi eurokoa da.

Aitoren % 34k "ordaintzeko" emaitza du, 54,9 milioi euroko zenbatekoa tarteko. Gainerako % 9k "zero" emaitza du.

Emaitzarekin ados dauden pertsonak ez dute bestelako tramiterik egin behar, itzulketa edo kobrantza modu automatikoan eginen baita proposamenean azaldutako kontu korrontean. Adostasunik ez dagoen kasuetan, aski izanen da ordezkot aitortena aurkeztea eskuragarri dauden bideetako edozeinen bitartean, ekainaren 24ra arte, azken egun hau barne.

Aitortena egin ez dutenek Interneten bidez egiten ahal dute apirilaren 4tik aurrera, eta modu presentzian apirilaren 12tik aitzina, Ogasunaren nahiz entitate laguntzaileen bulegoetan.

Internet bidezko aitortena [www.zurieresker.info](http://www.zurieresker.info) webgunean egiten ahal dira Nafarroa Errenta aplikazioari esker edo Ogasunak herritarren eskura jarri duen laguntza programaz baliatuta. Aurreko kanpaina, aitoren % 18 bitarteko honen bidez aurkeztu zen.

Nafarroako Ogasunak Iruñean, Barañainen, Tafallan, Tuteran eta Lizarran dituen bulegoetan aitortena aurkezten ahalko dira apirilaren 12tik aurrera, eta Doneztebeko bulegoan, kanpaina apirilaren 23an abiatuko da.

Nolanahi ere, nahitaezkoa izanen da alde aurreko hitzordua eskuratzea, Interneten, [www.zurieresker.info](http://www.zurieresker.info) webgunearen bitartez, edo 948 505 505 eta 948 505 506 telefonoetara deituz.

Bestalde, aurtengo kanpaina, 16 entitate laguntzailek Nafarroako Ogasunarekin batera jardungo dute aitortena egiten. Hauexek dira: Nafarroako Rural Kutxa; Laboral Kutxa; Caixabank; Banco Bilbao Vizcaya; Grupo Santander; Ibercaja; Caja España; AEHN; ANAPEH; TARGOBANK; INTIA, S.A.; TRADISNA; Kutxabank; UAGN; Harakinen Gremioa eta Arrain-sailtzaileen Gremioa.

Aitortena 12az geroztik aurkezten ahalko dira entitate horien bulegoetan, eta alde aurreko hitzordua lortzeko, entitate bakoitzak ezarritako jarraibideak bete beharko dira.

Aurreko kanpainetan bezalaxe, Ogasunak pixkanaka-pixkanaka ordainduko ditu "itzultzeko" emaitza duten aitoren zenbatekoak; gehienak, kanpaina bera bukatu aitzin, baina ordainketak egiteko muga 2019ko abenduaren 24a izanen da. Kobrantzei dagokienez, 2019ko uztailaren 4tik azaroaren 20ra bitartean eginen dira.

### **% 0,7ko ekarpena**

Zergadunek eskubide osoz erabaki dezakete PFEZaren % 0,7ko ekarpena "Eliza Katolikoari", "Beste helburu sozial batzuei" edo biei egin nahi ote dieten. Aurretiaz landutako proposamenean, aurreko kanpainak hautaturiko aukera markatu da.

Nolanahi ere, aitortena lehendabiziko aldiz egiten dutenen kasuan, aukera hori markatu gabe geldituko da, nori eman erabaki arte. Egoera honetan zegoen aurreko kanpainako zergadunen % 18, eta ondorioz, Nafarroako Ogasunak gogoratu du, Interneten bidez ([www.graciasati.info](http://www.graciasati.info)) nahiz zergadunari arreta emateko 948 50 51 52 telefonoan, ekarpen hori esleitzen edo proposamenean markaturikoa aldatzen ahal dela, azken hau deuseztatu beharrik gabe.

### **488.235 zergadun 2017an**

[lazko kanpaina](#) 488.235 zergadunek egin zuten aitortena, eta guztien artean, 9.210 milioi euroko likidazio-oinarria aurkeztu eta 2.250 milioiko ekarpena egin zuten PFEZeko zergetan (kuota osoa).

Sexuen arabera, gizonetakoek (zergadunen % 49,93) likidazio-oinarriaren % 61 aurkeztu eta kuota osoaren % 63ko ekarpena egin zuten, eta emakumeetakoek (% 49,37) likidazio-oinarriaren % 38 aurkeztu eta kuota osoaren % 36ko ekarpena egin zuten.

Errenta-tartean arabera, zergadunen % 40,29k 12.000 eurotik beherako likidazio-oinarriak aitortu eta

guztizko kuota osoaren % 6,71eko ekarpena egin zuen. Zergadunen % 40,42k, 12.000 eta 30.000 euro bitarteko likidazio-oinarriaren barnean, kuota osoaren % 38,95eko ekarpena egin zuen. Halaber, aitortpena egin zutenen % 16,88k, 30.001 eta 60.000 euro bitarteko oinarriari atxikita, guztizko kuota osoaren % 36,65eko ekarpena egin zuen. Azkenik, pertsonen % 2,4k 60.000 eurotik gorako likidazio-kuotak aitortu zuen, guztizko kuota osoaren % 17,7 estaliz.

Aurreko kanpainan, onura fiskalak kuotaren gaineko kenkarietan metatu ziren, izan ere, 2016az geroztik, norbanakoaren gutxienekoa eta aurrekoei zein ondorengoei dagokiena aplikatzen da. Guztira, 2017an, 1.225 milioi euroko onura fiskalak izan ziren, aurreko kanpainan baino 17,7 milioi euro gehiago.

### **2018ko Ondare Zerga**

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarekin batera, apirilaren 4tik ekainaren 24ra bitartean, biak barne, Ondarearen Kanpaina ere irekita egonen da. Zerga honi buruzko aitortpena egin behar dute milioi bat eurotik gorako ondasunak dituzten zergadunek. Salbuetsita dagoen gutxieneko kopurua 550.000 eurokoa da, eta gogoratu behar da ohiko etxebizitzaren lehendabiziko 250.000 euroak ere salbuetsita daudela.